



RAQQA, «KALIFALDIKO HIRIBURUA»

Argazkian azaltzen den emakumea bere etxearen hondakinak ikustean negarrari eutsi ezinik dago, umea besoetan duelarik. Irudia Raqqa hirian hartua da, 2017ko urriaren 20an, kurduek Estatu Islamikoa kanporatu ostean. 2013an okupatu zuten islamistek, eta «kalifaldiko hiriburu» izendatu. Bulent KILIC / AFP.

SIRIATIK IHESEAN, EUROPARA IRITSI NAHIAN

6,6 milioitik gora siriarrak ihes egin dute. 127 herrialdetan bizi dira. Turkia da errefuxiatu siriarr gehien dituen herrialdea, 3,6 milioi. Familia askok Europarako bidea hartu dute, beren bizitza arriskatuz. Irudian, errefuxiatuak Lesbos irlara iristen, Grezian. Achileas ZAVALLIS / AFP



OSASUN AZPIEGITURA AHULA PANDEMIA GARAIAN

Osasun zentroak erasoen jomugatzat hartu dituzte aktore armatu guztiek. Medikuek asko hil dira, edo ihes egin dute. Mugarik Gabeko Medikuek ohartarazi dutenez, osasun sistema kolapsatuta dago eta ez du gaitasunik pandemiari aurre egiteko. Abdul MAJEED / MSF

AL-HOL, GERRAREN BESTE ALDE BAT

Al-Holeko kanpamentuan 60 nazionalitate desberdinetako haurrak bizi dira beren ama edo senideekin, ISISekin edo bestelako talde armatuekin lotura izan zutelako susmopean. NBEk adingabeak beren komunitateetan edo jatorrizko herrialdeetan birgizarteratzea eskatu dute. Ricardo GARCÍA VILANOVA / MSF

